



BAGA, BIGA, HIGA

**Euskarazko musikaren
transmisioa eta sustapena**

- AURKEZPENA
- PROIEKTUAREN AZALPENA
- NORI ZUZENDUA?
- HELBURUAK
- HITZALDIAK
- PROIEKTUAREN BULTZAILEAK
ETA HIZLARIAK





BAGA, BIGA, HIGA

Teknologia berriek, informazio eta aukera gain-dosi eta globalizazio orokor batek markatutako garai batean bizi gara.


Zapping garaia bizi dugu, gure hautuen iraungipena inoiz baino laburragoa da eta 'erabili eta bota' aldarrikatzen du gizarte ereduak.

Herri txikiok esfortzu bikoitza egitera behartuta gauden honetan, erabiltzeko, bizitzeko, aukeratzeko eta maitatzeko, gure eskaintzak inoiz baino indar eta erakargarritasun haundiagoz sustatu eta zabaldu behar ditugu. Alegia, gure erreferenteak eta ereduak indartzeko alegina bikoiztu alor ezberdinetan.

Guk gure aldetik, musika eta kantuek duten garrantziaz ohartuta eta bai kurrikulumean eta bai bestelako guneetan dagoen hutsuneak bultzatuta, musikagintzan egin nahi dugu gure alegina.

Gure musikagintzaren historia, erreferenteak eta zaletasuna sustatzeko proiektu bat aurkeztera gatoz. Generazio berriek gure musikagintza sakonago ezagutu, aukeratu, maitatu eta bizi dezaten.

Proiektu honek, transmisioa du xede.



PROIEKTUAREN AZALPENA

Baga, biga, higa euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu dituen proiektua da. Multimedia formatuko hitzaldi-kontzertuen bidez, ikus-entzuleari euskal musikaren historiaren gaineko begirada eskaini nahi zaio, 60. hamarkadaren aurreko garaietatik hasi eta gaur egunera artekoa.

Musikariak izango gara hizlari eta kantari, euskal musikagintzaren mundua barrenetik ezagutzen eta bizi dugunak, eta hitzez bakarrik ez, kantuz ere islatuko ditugu **BAGA**, iragana; **BIGA**, oraina eta **HIGA**, etorkizunerako erronkak eta aukerak.

Bost ataletan banatu dugu euskal musikaren historia:

- 60ko hamarkadara artekoa
- 60ko eta 70eko hamarkadak
- 80ko hamarkada
- 90eko hamarkada
- 2000. urtetik gaur egunera artekoa

Hamarkaden arteko lotura eta heldulekutzat musika euskarriak erabili ditugu. Garai bakoitzean erabili den euskarriak informazio asko ematen du aro bakoitzari buruz. Horregatik, euskarriak gabeko garaietatik hasi eta DISKO BINILOEN AROA (60-70. hamarkadak), CASETTEN AROA (80ak), CD-EN AROA (90ak), eta MP3-EN AROA (XXI. mendea) –euskarriak gabeko aro modernoa– jorratu ditugu.

Hitzaldiek parte-hartzaileak eta ludikoak izatea dute helburu, eskola magistraletatik urrun, pasioz bizi dugun mundu honi begirada propioa emateko eta ikus-entzuleekin partekatzeko.





NORI ZUZENDUA?

Nagusiki, gure ikus-entzule potentzialtzat hezkuntza arautuko gaztetxoak eta gazteak ikusten ditugu, DBH 3, DBH 4 eta batxilergoko ikasleak hain zuzen.

HELBURUAK

1. Euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena.
2. Euskal musikaren ezagutza lehen eskutik ematea, musika zaletasuna piztea eta euskal erreferenteak sortzea eta indartzea.
3. Ikus-entzuleek euskal kantagintzaren historiaren argazki osatu bat berenganatzea.
4. Gaur egun euskaraz egindako musikagintzaren funtzionamenduari eta egoerari buruzko gogoeta konpartitua egitea.
5. Edukiak gazteentzat eta gaur egungo hartzailleentzat erakargarri izango den formatu modernoan ematea.

HITZALDIAK

Hitzaldien gutxieneko iraupena 90 minutukoa izango da (Euskal kantagintzari begirada orokorra), baina eskariaren arabera, hainbat formatu posibletan eskain dezakegu Baga, biga, higaren edukia.

- Ikus-entzunezko hitzaldiak eskainiko ditugu (hitzaldi-kontzertuak + irudiak + bideoak + grabazioak + musikarien testigantzak), parte hartzeko tarteak izango dituztenak.
- Hitzaldiaren luzeraren arabera, tarteak uzten duen heinean, garai bakoitzeko abesti hautatuak kantatuko ditugu.
- Euskarazko lehen grabazioak eskainiko ditugu, Parisen XX. mendearen hasieran hartuak.
- Euskal musikariei egindako irratzi-elkarrizketak izango dira entzungai.
- Aurkezpena teknologia berriak erabiliz egingo dugu eta informazio gehigarria jarriko dugu entzuleen eskura, hitzaldira hurbiltzen direnen mugikorretara gonbite mezuen eta sare sozialen bitartez. Aurkezpenaren diseinua ere oso zaindua izango da, irudi aldetik ere erakargarria eta garai berrietara egokitua izatea nahi izan baitugu.

PROIEKTUAREN BULTZATZAILEAK ETA HIZLARIAK



EÑAUT ELORRIETA (Gernika, 1975). Umetan Lugarri taldeko abeslaria eta gitarra-jolea izan zen; gaztetxotan erromeriatan aritu zen Zabaleta Band taldearekin, gitarra jole izan zen Mikel Urdangarinen lehen bi diskoetan eta 2000. urtetik KenZazpi taldeko abeslaria, gitarrajolea eta konposatzailea da. Fisikan eta Injeniaritzan lizentziatua, hamarkada batez irakasle lanetan aritu da DBHn eta DBHOn. “Euskal Kulturgintzaren Transmisioa” graduondokoa egin zuen HUHEZIn. Gaur egun musikari emana bizi da.



MIKEL MARKEZ (Errenteria, 1971). Hamabost urterekin hasi zen gitarra jotzen eta lehen kantuak egiten, jendaurreko saioak eskainiz. 1989an grabatu zuen lehen maketa, 1991n lehen diskoa (*Eta etorri egin zait...*), eta ordutik beste zortzi disko eta zuzeneko hainbat ikuskizun sortu ditu Pako Aristi idazlearekin batera. Kantaldietan bakarrik ez, uhinetan ere entzun dugu haren ahotsa, Herri Irratian esatari aritu baita 16 urtez, eta gaur egun Euskadi Irratian *Kaja Beltza* irratsaioa zuzentzen du.



HARREMANETARAKO: ni@mikelmarkez.eus
enautelorrieta@gmail.com